

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5181

EBAZPENA, 2022ko azaroaren 18koa, Kulturako sailburuordearena, 2022. eta 2023. urteetan euskal kultura-ondare immateriala babesteko lanak egiteko dirulaguntzak emateko dena.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2022ko uztailaren 22ko Aginduaren bidez (ekainaren 7ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 168. zk.), 2022. eta 2023. urteetan euskal kultura-ondare immateriala babesteko lanak egiteko dirulaguntzetarako deialdia arautzen da.

Eskabideak aztertu ondoren, eta deialdiaren 15. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, Balorazio Batzordeak, 2022ko urriaren 24an egindako bileran, dirulaguntzak emateko proposamena egin zuen.

Horregatik guztiagatik, Balorazio Batzordeak egindako proposamena ikusita, eta aipatutako Aginduaren 17. artikuluekin eta aplikazio orokorreko gainerako xedapenekin bat etorritz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean zerrendatzen diren eskatzaileei dirulaguntzak ematea, zehazten diren zenbatekoekin.

Bigarrena.– Eskatutako dirulaguntza ukatzea ebazpen honen II. eranskinean ageri diren pertsonen, eranskinean bertan ematen diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– III. eranskinean zehaztutako eskabideak ez onartzea, bertan azaldutako arrazoiengatik.

Laugarrena.– Proposatutako onuradunek agindu arautzailean ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eremuan oro har indarrean dauden gainerako baldintza guztiak ere.

Bosgarrena.– Diruz laguntzekoak diren proiektuek 2022ko ekitaldian hasita egon beharko dute. Amaitzeko epearen azken eguna 2023ko urriaren 3a izango da, eta ezin izango da gauzatzeko epea data horietatik aurrera atzeratu edo luzatu.

Seigarrena.– Dirulaguntza arautzen duen aginduaren 20. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, honela ordainduko da dirulaguntza:

a) Lehenengo ordainketan, dirulaguntzaren % 50 emango da, laguntza ematea onartzen den nean, berariaz uko egiten ez bazaio.

b) Gainerako % 50a gastua justifikatu ondoren ordainduko da, dirulaguntzaren indarraldia amaitu eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Zazpigarrena.– Emandako dirulaguntzak aginduaren 21. eta 22. artikuluetan xedatutakoaren arabera justifikatu eta likidatuko dira. Nolanahi ere, justifikazio-agiriak aurkezteko azken eguna 2023ko urriaren 31 izango da, egun hori barne.

Zortzigarrena.– Ebazpen hau pertsona eta erakunde interesdunei jakinaraztea.

2022ko azaroaren 28a, astelehena

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, herritar guztiek haren berri izan dezaten azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 49.2 artikulua araberaren arabera.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, pertsona eta erakunde interesdunek ebazpen honen jakinarazpena jaso edo Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 18a.

Kulturako sailburuordea,
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.

2022ko azaroaren 28a, astelehena

I. ERANSKINA

EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

Eskatzailea	Espediente-kodea	Proiektuaren izenburua	Puntuak	Urtealdia	1. ordainketa (2022)	2. ordainketa (2023)	Dirulaguntzaren zenbatekoa
Asociación Unesco Etxea-Centro Unesco del Pais Vasco	019-OIB-2022	Patrimonio cultural inmaterial y desarrollo sostenible	88	2022-2023	13.436,10	13.436,10	26.872,20
Erandioko Udala	005-OIB-2022	Erandioko berbaeraren bilduma	69	2022-2023	2.500,00	2.500,00	5000,00
Balmasedako Udala	004-OIB-2022	Proyecto para el estudio del patrimonio inmaterial de la Semana Santa de Balmaseda, II parte	80	2022-2023	14.943,50	14.943,50	29.887,00
Fundacion Punta Begoña	010-OIB-2022	Expresiones de patrimonio inmaterial en la ría de Bilbao	71	2022-2023	15.000,00	15.000,00	30.000,00
Labayru Fundazioa	007-OIB-2022	Bizkaiko ermiten ondare immaterialaren inbentariorantz	86	2022-2023	15.000,00	15.000,00	30.000,00
Labrit Multimedia SL	008-OIB-2022	Estudio, documentación, investigación y trabajo de campo sobre PCI en la cuadrilla de Añana / Añanako kuadrilla	91	2022-2023	14.944,50	14.944,50	29.889,00
Ondare Babesa, SL	017-OIB-2022	Los concejos alaveses más allá de la institución: identidad, comunidad y pervivencia	71	2022-2023	15.000,00	15.000,00	30.000,00
Soinuenea Fundazioa	002-OIB-2022	Abendua: Bizkaiko Gabonetako kantu-errondak	83	2022-2023	8.777,26	8.777,27	17.554,53
		Guztira:			99.601,36	99.601,37	199.202,73

II. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKAERAK

Eskatzailea	Espediente-kodea	Proiektua	Arrazioa
Badihardugu Deba Ibarreko Euskera Alkartia	018-OIB-2022	Euskal eskulangintza teknika tradizionalak jaso eta ezagutarazten: Saskigintza	(1)
Basatia Producciones S.L.	020-OIB-2022	Ermitas – atalayas marítimas del País Vasco	(1)
Euskal Dantzarien Biltzarra (EDB)	014-OIB-2022	Gazteen Dantza Topaketa	(2)
Federación Vasca de Tennis	001-OIB-2022	Euskal tenisaren historia – Historia del tenis vasco	(1)
Igeldoko Ondare Historikoa	003-OIB-2022	Igeldoko ondare historikoa jasotzeko egitasmoa 1800-1980 bitarteko argazki zein testu bilduma	(1)
Josu Ozaita Azpiroz	006-OIB-2022	Euskal sagardoaren sarea: elikagaien patrimonializazioa, identitatea eta iruditeria, emozioak kontuan izanda	(1)
Pilar Raventos de Volart	013-OIB-2022	Salv guarda del patrimonio sonoro 3D de los carnavales rurales del País Vasco	(2)
Sagardun Partzuergoa	009-OIB-2022	«Sagardoa: ofiziotik aisialdira?» erakusketa	(2)

(1) Lortutako puntuazioa ez da iritsi dirulaguntza jasotzeko eskubidea izateko agindu arautzailean ezarritako gutxieneko kopurura, 60 puntu (aginduaren 15.1 artikulua).

(2) Nahiz eta lortutako puntuazioa dirulaguntza jasotzeko eskubidea izateko agindu arautzailean ezarritako gutxienekora iritsi (aginduaren 15.1 artikulua), ukatu egin dira, horretarako prestatutako aurrekontu-partida agortzeagatik.

2022ko azaroaren 28a, astelehena

III. ERANSKINA

BAZTERTUTAKO ESKAERAK

Eskatzailea	Espediente-kodea	Proiektua	Arrazoa
Albaola Asociación Patrimonio Marítimo Vasco	015-OIB-2022	Antzinako sokagintza teknikak ikertu, berreskuratu eta ezagutzera emateko proiektua	(1)
Asociación Cultural Antzasti	012-OIB-2022	Arratiko «Krideak»	(1)
Badihardugu Deba Ibarreko Euskera Alkartia	016-OIB-2022	Lurrari lotutako jakintza eta praktikak: garia Gipuzkoan	(1)
Mutiloako Udala	011-OIB-2022	Mutiloako meatze esparrua ondare immateriala babesteko eta informazioa dokumentatzeko proiektua	(1)

(1) Diruz laguntzea nahi den jarduerak ez du betetzen dirulaguntzen agindu honen xedea (aginduaren 2. artikulua).